Nabarnizko Udala
- - - - - -

PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DE SERVICIOS POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO ABREVIADO

ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA; ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI ERRAZTU LABURTUAREN BIDEZ KONTRATATZEKO

I. CONTENIDO DEL CONTRATO

1. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto el control de los vertidos de aguas residuales de Nabarniz, de conformidad con la documentación técnica que figura en el expediente que tendrá carácter contractual.

CPV:
71800000-6 Servicios de consultoría en suministro de agua y en materia de desechos

71900000-7 Servicios de laboratorio

2. PLAZO

El plazo de ejecución del contrato comenzará el 1 de enero de 2026, y será de cinco años, sin la posibilidad de prórroga.

3. PRESUPUESTO DEL CONTRATO

El presupuesto total del contrato será de doce mil euros (12.000,00 €) más su correspondiente IVA, presupuesto que podrá ser mejorado por los licitadores. El presupuesto se refiere a la duración máxima total del contrato, esto es, cinco años.

4. FINANCIACION

Para sufragar el precio del contrato, el órgano competente en materia presupuestaria reservará los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

5. FORMA DE PAGO

El pago del precio del contrato se realizará contra la presentación y conformidad de la

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea hau da: Nabarnizko hondakin uren isurien kontrola. Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz egingo da. Biek dute kontratu-balioa.

CPV:
71800000-6 Servicios de consultoría en suministro de agua y en materia de desechos

71900000-7 Servicios de laboratorio

2. EPEA

Kontratuaren exekuzio epea, 2026ko urtarrilaren 1ean hasiko dena, bost urtekoa izango da, luzapenik gabe.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA

Kontratuaren guztizko aurrekontua hamabi mila eurokoa izango da (12.000,00 €), gehi dagokion BEZa. Lizitatzaileek aurrekontua hobetu dezakete. Aurrekontua kontratuaren gehienezko iraupenari dagokio, hau da, bost urte.

4. FINANTZABIDEAK

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

5. NOLA ORDAINDU

Sei hilabeterik behin faktura bat aurkeztu beharko du kontratistak udalaren aurrean,

correspondiente factura semestral, que se presentará a semestre vencido. El pago se hará efectivo en el plazo máximo de un mes desde la aprobación de la factura por el órgano correspondiente.

El contratista podrá presentar factura electrónica. A los efectos de su emisión, los datos del Ayuntamiento son los siguientes:
Oficina gestora: Nabarnizko Udala (código L01489098)
Unidad tramitadora: Nabarnizko Udala (código L01489098)
Oficina contable: Nabarnizko Udala (código L01489098)

6. REVISION DE PRECIOS
En el presente contrato no procederá la revisión de precios.

7. GARANTIAS
No se requerirá la constitución de garantía provisional ni definitiva, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 159.6.f) de la Ley 9/2017 de contratos del sector público.

8. EJECUCION DEL CONTRATO
La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista.

El contrato se ejecutará con estricta sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego y al pliego de cláusulas técnicas, bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente.

Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.

aurreko sei hilabeteetan emandako zerbitzuari dagokiona. Faktura hori dagokion organoak onartu eta hilabeteko gehienezko epean ordainduko da.

Kontratistak faktura elektronikoa aurkeztu ahal izango du. Bera egiteko, hauexek dira udalaren datuak:
Kudeaketa bulegoa: Nabarnizko Udala (L01489098 kodea)
Izapidetza unitatea: Nabarnizko Udala (L01489098 kodea)
Kontabilitate bulegoa: Nabarnizko Udala (L01489098 kodea)

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA
Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea.

7. BERMEAK
Ez da eskatuko behin-behineko ezta behin-betiko bermerik ere, arlo publikoaren kontratuen 9/2017 legearen 159.6 f) artikuluan ezarritakoaren aranbera

8. KONTRATUA BURUTZEA
Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9. OBLIGACIONES LABORALES DEL CONTRATISTA

El contratista está obligado al cumplimiento de la normativa vigente en materia laboral, de seguridad social, de integración social de personas con discapacidad y de prevención de riesgos laborales, así como de las que se promulguen durante la ejecución del contrato, quedando el Ayuntamiento exonerado de responsabilidad por este incumplimiento.

9. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

Kontratistak lanaren, gizarte segurantzaren, ezintasuna daukaten pertsonak gizarteratzeko eta lan arriskuak prebenitzeko indarrean dauden legezko xedapen guztiak bete behar ditu, kontratua indarrean dagoen bitartean argitaratuko direnak ere bai. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

10. RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO.

El contratista será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 196 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público.

10. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratistaren ardura da hornidura-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

11. MODIFICACIONES DEL CONTRATO

La Administración podrá modificar el contrato por razones de interés público cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en el art. 205 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público y siempre que con ello no se alteren las condiciones esenciales de la licitación y adjudicación.

Las posibles modificaciones referidas anteriormente serán obligatorias para la persona concesionaria, cuando impliquen, aislada o conjuntamente, una alteración en su cuantía que no exceda del 20 por ciento del precio inicial del contrato. En caso contrario, el contratista podrá aceptar la modificación o instar la resolución del contrato, de conformidad con lo establecido en la letra g) del apartado 1 del artículo 211 de la LCSP

11. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzeko ahalmena izango du, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2015 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada, beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat, kontratuaren hasierako prezioa ez bada aldatuko ehuneko 20ko baino handiagoa den zenbatekoan. Horrela balitz, hau da, aldaketa %20 baino handiagoa bada, kontratistak aldaketa onartu ahal izango du, edo bestela kontratua bertan behera uztea eskatu ahal izango du, arlo publikoen kontratuei buruzko Legearen 211 artikuluaren 1.atalaren g) letran xedatutakoaren arabera.

12. PENALIDADES AL CONTRATISTA POR INCUMPLIMIENTO

En caso de incumplimiento de las obligaciones del contrato, el Ayuntamiento podrá imponer al concesionario una penalidad de hasta el 10% del importe total del contrato, sin perjuicio de su facultad de resolverlo si el incumplimiento afecta a obligaciones contractuales esenciales.

12. KONTRATUA EZ BETETZEAGATIKO ZIGORRAK

Kontratuaren obligazioak beteko ez badira, Udalak kontseziodunari isuna ezarri ahal izango zaio, kontratuaren guztizko prezioaren %10 arte heldu ahal izango dena, eta kontratuaren funtsezko obligazioak badira betetzen ez direnak, kontratua bertan behera utzi ahal izango du.

13. CAUSAS DE RESOLUCION DEL CONTRATO

Constituyen causas de resolución del contrato servicios las establecidas en los artículos 211 y 313 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público.

13. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Zerbitzu-kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 211 eta 313. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

14. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACION

Corresponden al Ayuntamiento las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en los artículos 190 y 191 de la Ley de Contratos del Sector Público.

14. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK

Udalari dagokio: kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 190 eta 191 artikuluetan ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR

15. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACION

El contrato se adjudicará por el procedimiento abierto, rigiéndose, asimismo, por las reglas aplicables a la tramitación simplificada abreviada del mismo, de conformidad con lo previsto en el artículo 159.6 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

15. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura irekiaren bidez egingo da, eta tramitazio erraztua eta laburtua egingo da, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 159.6 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz,

16. APTITUD PARA CONTRATAR

Podrán optar a la adjudicación del presente contrato las personas naturales o jurídicas, que tengan plena capacidad de obrar, que no se encuentren incursas en las prohibiciones e incompatibilidades para contratar con la

16. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen

Administración establecidas en el artículo 85 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público y que dispongan de la debida solvencia económica, financiera y técnica, si bien, habida cuenta de la tramitación del presente procedimiento al amparo de las previsiones del artículo 159.6 LCSP 2017, se eximirá a los licitadores de la acreditación de la solvencia económica y financiera y técnica o profesional.

9/2017 Legearen 85. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta, eta baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala baldin badaukate. Hala ere, 2017ko SPKLren 159.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera tramitatu beharreko prozedura honen ezaugarriak direla eta, lizitatzaileek ez dute frogatu beharko haien kaudimen ekonomiko-finantzieroa, ezta haien kaudimen tekniko edo profesionala ere.

Además, las empresas adjudicatarias deberán ser personas físicas o jurídicas cuya finalidad o actividad tenga relación directa con el objeto del contrato y disponer de una organización con elementos personales y materiales suficientes para la debida ejecución del contrato.

Gainera, enpresa adjudikatarioak kontratu honen objetuarekiko harreman zuzena daukaten pertsona fisiko edo juridikoak izan beharko dira, eta kontratua behar den moduan burutzeko pertsona eta material nahikoa duen antolakuntza izan behar dute.

En todo caso las licitadoras deberán tener la condición de “entidad colaboradora” habilitada para las labores de apoyo a la Administración hidráulica en materia de control y vigilancia de la calidad de las aguas, de las reguladas por el artículo 255 del Real Decreto 849/1986, de 11 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Dominio Público Hidráulico

Edozein kasutan ere, lizitatzaileak “erakunde laguntzaile” izaera izan beharko dute, uren kontrol eta zaintzarako lanetan uren ardura duen administrazioari laguntza emateko gaituak, jabari publiko hidraulikoaren araudia onartu duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege dekretuaren 255 artikuluan araututa daudenak.

Las empresas extranjeras no comunitarias deberán reunir además los requisitos establecidos en el artículo 68 de la Ley 9/2017.

Atzerriko eta Europako batasunetik kanpoko enpresek, gainera, 9/2017 Legearen 68. artikuluan xedatutako baldintzak bete beharko dituzte.

17.- CRITERIOS DE ADJUDICACION

Para la valoración de las proposiciones y la determinación de la mejor oferta se atenderá a un único criterio de adjudicación: el precio más bajo ofertado.

17.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

Proposamenak baloratzeko eta eskaintzarik hoberena zehazteko adjudikazio irizpide bakarra izango da kontuan: eskainiko den preziorik baxuena.

18. PRESENTACION, FORMA Y CONTENIDO DE LAS PROPOSICIONES

La tramitación del presente procedimiento será electrónica, de forma que las proposiciones deberán presentarse necesaria y únicamente en el registro indicado en el anuncio de licitación y en los

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA ETA EDUKIA

Prozedura honen tramitazioa elektronikoa izango da, beraz, proposamenak lizitazio iragarkian eta baldintza orrri hauetan adieraziko den erregistroan aurkeztu ahal izango dira soilik eta derrigorrez.

presentes pliegos, ubicado en la plataforma de contratación pública en Euskadi: http://www.contratacion.euskadi.eus

El anuncio de licitación del contrato únicamente precisará de publicación en el perfil de contratante del órgano de contratación. Toda la documentación necesaria para la presentación de la oferta estará disponible por medios electrónicos desde el día de la publicación del anuncio en dicho perfil de contratante.

El plazo para la presentación de proposiciones será de diez días hábiles a contar desde el siguiente a la publicación en el perfil de contratante del anuncio de licitación.

La oferta se presentará en un único archivo electrónico, y contendrá:

a) La declaración responsable firmada, que deberá ajustarse al modelo del anexo I
b) La proposición económica, que se ajustará al modelo del anexo II y deberá venir firmada electrónicamente.

El órgano o la mesa de contratación podrán pedir a los licitadores que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos de las circunstancias que constan en la declaraciones, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato.

No obstante lo anterior, cuando el empresario esté inscrito en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o figure en una base de datos nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y estos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligado a presentar los documentos

Erregistroa Euskadiko kontratazio publikorako plataforman dago: http://www.contratacion.euskadi.eus

Kontratuaren lizitazio iragarkia kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da soilik. Eskaintza edo proposamena aurkezteko behar diren agiri guztiak bitarteko elaktronikoen bidez eskuratu ahal izango dira, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko den egunetik.

Proposamenak aurkezteko epea hamar lan egunekoa izango da, lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko den biharamonetik aurrera kontata.

Eskaintza fitxategi elektroniko bakar batean aurkeztuko da, eta edukiko du:

a) Sinatutako erantzukizuneko aitorpena, I eranskinean ageri den ereduaren arabera
b) Proposamena ekonomikoa, II eranskinean ageri den ereduaren arabera, eta sinadura elektronikoa eduki behar duela.

Kontratazio organoak edo mahaiak eskatu ahal izango die lizitatzaileei, adierazpenetan ageri diren inguruabarrak justifikatuko dituzten agiriak aurkezteko, adierazpenaren indarrari edota fidagarritasunari buruzko arrazoiko zalantzak daudenean, prozeduraren garapenerako beharrezkoa denean eta, beti ere, kontratua adjudikatu baino lehenago.

Hala ere, lizitatzailea erroldatuta baldin badago arlo publikoaren lizitatzaileen eta sailkatutako enpresen erregistro ofizialean, edota Europar batasuneko estatu kide bateko datu baseren batean ageri bada, adibidez enpresaren espediente birtual modura, agiriak artxibatzeko sistema elektroniko edota aurresailkatzeko sistemaren batean, eta hauek esandako organoen eskura badaude eta doakoak badira, enpresak ez du agiririk aurkezteko

justificativos u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares.

Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar a las que se refiere el artículo 140 LCSP 2017, deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfección del contrato.

19. MESA DE CONTRATACION

Para la adjudicación del contrato, el órgano de contratación estará asistido de una Mesa de contratación compuesta por los siguientes miembros:

Presidente: D. Jose Antonio Maruri Urizar, Alcalde de Nabarniz

Vocales:

- Un/una concejal miembro del grupo EH Bildu Nabarniz
- Un/una concejal miembro del grupo Nabarnizko EAJ-PNV
- Dña. Emilia González Madariaga, Secretaria-Interventora del Ayuntamiento

Secretaria: Dña. Oihana Goiriena Foruria, funcionaria del Ayuntamiento

20.- APERTURA DE PROPOSICIONES

La Mesa de contratación se constituirá tras la finalización del plazo de presentación de las proposiciones, y procederá, en acto público, a la apertura de los archivos electrónicos y calificará la documentación administrativa contenida en los mismos.

Tras dicho acto público, en la misma sesión, la mesa procederá a:

1º. Previa exclusión, en su caso, de las ofertas que no cumplan los requerimientos del pliego, evaluar y clasificar las ofertas.
2º. Realizar la propuesta de adjudicación a favor del candidato con mejor puntuación.
3º. Comprobar que el firmante de la proposición tiene poder bastante para formular la oferta, ostenta la solvencia

obligaziorik izango, eskatu zaizkion datuak esandako lekuren batean badaude.

9/2017 Legearen 140 artikuluak aipatzen dituen inguruabarrak (ahalmena, kaudimena eta kontratatzeko debekurik ez izatea), proposamenak aurkezteko azken egunean eduki behar dira, eta kontratua gauzatuko den momentuan ere.

19. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratua esleitzeko, kontratazio-organoari Kontratazio Mahaiak lagunduko dio. Mahai hori honako kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Jose Antonio Maruri Urizar, Nabarnizko Alkatea

Mahaikideak:

- EH Bildu Nabarniz udal taldeko zinegotzi bat
- Nabarnizko EAJ-PNV udal taldeko zinegotzi bat
- Emilia González Madariaga, udal idazkari-kontuhartzailea

Mahaiko idazkaria: Oihana Goiriena Foruria, udaleko funtzionarioa

20.- PROPOSAMENAK ZABALTZEA

Kontratazio Mahaia proposamenak aurkezteko epea igarota eratuko da eta, ekitaldi publikoan, fitxategi elektronikoak zabalduko ditu, eta bertan egongo diren agiriak sailkatuko ditu.

Ekitaldi publikoaren ostean, eta saio berberean, Mahaiak honakoak egingo ditu:

1. Pleguaren betekizunak betetzen ez diren eskaintzak baztertu ondoren, eskaintzak aztertu eta sailkatu
2. Puntuaziorik hoberena duen lizitatzailearen aldeko adjudikazio proposamena egin
3. Proposamena sinatu duenak eskainza aurkezteko ahalmena duela, kaudimen ekonomiko, finantziero edota teknikoa

económica, financiera y técnica o, en su caso la clasificación correspondiente y no está incursa en ninguna prohibición para contratar.

duela edo sailkatua dagoela eta kontratazio debekurik ez daulaka egiaztatu

La valoración de las ofertas se efectuará automáticamente mediante dispositivos informáticos, o con la colaboración de una unidad técnica que auxilie al órgano de contratación.

Eskaintzen balorazioa automatikoki egingo da tresna informatikoen bitartez, edota kontratazio organoa lagunduko duen unitate tekniko batekin elkarlanean.

En el caso de que la oferta del licitador que haya obtenido la mejor puntuación se presuma que es anormalmente baja por darse los supuestos previstos en los artículos 85 y 86 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas (RD 1098/2001) la mesa, realizadas las actuaciones recogidas en los puntos 1.º y 2.º anteriores, seguirá el procedimiento previsto en el art. 149 LCSP 2017, si bien el plazo máximo para que justifique su oferta el licitador no podrá superar los 5 días hábiles desde el envío de la correspondiente comunicación.

Puntuaziorik altuena lortu duen lizitatzailearen eskaintza anormalki baxua dela irizten bada, Administrazio publikoen kontratuei buruzko legearen araudi orokorraren (RD 1098/2001) 85 eta 86 artikuluetan aurrikusitakoa gertatu delako, mahaiak, aurreko 1 eta 2 ataletan azaldutako ekintzak burut ondoren, 9/2017 legearen 149 artikuluan xedatu den prozedura hasiko da gauzatzen, baina lizitzatzaileari bere eskaintza justifikatzeko emango zaion epea ez da izango 5 lanegun baino luzeagoa, dagokion jakinarazpena bidali zaionetik.

21.- CRITERIOS DE DESEMPATE

El empate entre varias ofertas tras la aplicación de los criterios de adjudicación del contrato, se resolverá mediante la aplicación, por orden, de los siguientes criterios sociales, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas:

1º. Mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla de cada una de las empresas
2º. Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla de cada una de las empresas
3º. Sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar al desempate

21.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Kontratua adjudikatzeko irizpideak aplikatu ondoren eskaintzen arteko berdinketa gertatuko bada, berdinketa hausteko honako irizpideak aplikatuko dira, ageri diren hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epearen amaiera momentua erreferentziatzat hartuta:

1. Enpresa bakoitzaren plantilan dagoen emakume langile portzentai handiena
2. Enpresa bakoitzaren plantillan dagoen aldi baterako kontratuen portzentai baxuena
3. Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta ez bada lortu berdinketa hausterik

22.- ADJUDICACION DEL CONTRATO

Realizada la valoración de las ofertas y elaborada la propuesta de adjudicación, se procederá a adjudicar el contrato a favor del

22.- KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA

Eskaintzen balorazioa eginda eta adjudikazio proposamena eginda daudela, kontratazio mahaiak proposatu duen

licitador propuesto por la mesa de contratación, procediéndose, una vez adjudicado el mismo, a su formalización, que se efectuará mediante la firma de aceptación por el contratista de la resolución de adjudicación.

lizitatzailearen alde adjudikatuko da kontratua. Eta kontratua adjudikatuta dagoela, formalizatuko da, adjudikatarioak adjudikazioa egingo duen erabakia onartzeko sinatuko duenean izango delarik

23.- NOTIFICACION Y PUBLICACION DE LA ADJUDICACION

La resolución de la adjudicación deberá ser motivada, y se notificará a los licitadores por medios electrónicos en el plazo de 15 días. En el mismo plazo se publicará en el perfil del contratante.

23.- ADJUDIKAZIOAREN JAKINARAZ-PENA ETA ARGITALPENA

Adjudikazioaren ebazpena arrazoitua izan beharko da, eta lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie, modu elektronikoan, 15 eguneko epean. Epe horretan bertan kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

24.- PERFECCIÓN Y FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO

El contrato se perfeccionará mediante la adjudicación realizada por el órgano de contratación, formalizándose mediante la firma de aceptación por el contratista de la resolución de adjudicación.

24.- KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALTZEA

Kontratua kontratazio organoak egingo duen adjudikazioaren bidez burutuko da, eta adjudikazio horren ebazpena kontratistak onartuko denean formalduko da.

III.- NATURALEZA, REGIMEN JURIDICO Y JURISDICCION COMPETENTE

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

25. NATURALEZA Y REGIMEN JURIDICO DEL CONTRATO

El contrato a realizar se califica como contrato administrativo de servicios, de conformidad con lo establecido en el art. 17 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Se regirá por sus normas específicas y, en lo no previsto en ellas, por la Ley 9/2017 de Contratos del sector público y sus disposiciones de desarrollo. Supletoriamente se aplicarán las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las normas de derecho privado.

El desconocimiento del contrato en cualquiera de sus términos, de los documentos anejos al mismo, o de las

25. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Burutu beharreko kontratua zerbitzu kontratu administratiboa da, arlo publikoaren kontratuen 9/2017 Legearen 17garren artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratuaren beraren klausulek arautuko dute eta bertan aurreikusita ez dagoenerako, arlo publikoko kontratuen 9/2017 Legearen eta hau garatuko duten araudiaren arabera arautuko dira. Hauen ordez administrazio zuzenbidearen gainontzeko arauak aplikatuko zaizkio eta egon ezean, zuzenbide pribatuarenak

Kontratuaren edukia, edo beraren eranskinak diren agiriak ez ezagutzea, edo administrazioak emandako argibideak,

instrucciones, pliegos o normas de toda índole dictados por la Administración que puedan tener aplicación en la ejecución de lo pactado, no eximirá a la persona adjudicataria de la obligación de su cumplimiento.

orriak edo arauak, edozelakoak direla ere ez ezagutzeak, ez du esan nahi adjudikatarioak ez dituenik bete behar, eta ez dio kenduko betetzeko obligazioa.

En caso de discrepancia entre lo establecido en este Pliego y en el Pliego de Prescripciones Técnicas, prevalecerá lo dispuesto en este Pliego excepto en aquellas cuestiones y especificaciones de carácter técnico

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da, izaera teknikoa duten gaiak eta berezitasunetarako izan ezik.

26.- PROTECCION DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

En el caso de que la presente contratación implique el acceso a datos de carácter personal, el contratista deberá cumplir las obligaciones derivadas del Reglamento General de Protección de Datos, así como las derivadas de la disposición adicional vigesimoquinta de la LCSP en relación con la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y su normativa de desarrollo.

26. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honek izaera pertsonaleko datuak eskuratu beharra eragiten badu, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorretik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu kontratistak, bai eta SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarritik eratorritakoak ere (xedapen hori Datu Pertsonalen Babeserako eta eskubide digitaleen bermerako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta hura garatzeko araudiarekin lotuta).

27.- JURISDICCION COMPETENTE

Las cuestiones controvertidas que se puedan derivarse del presente contrato serán resueltas por el órgano de contratación, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y podrán ser impugnados directamente ante la jurisdicción contencioso administrativa, sin perjuicio de que, en su caso, proceda la interposición del recurso especial en materia de contratación regulado por los artículos 44 y siguientes de la Ley 9/2017, o cualquiera de los regulados en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

22. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu eta organoak erabakitakoek administrazioaren bideari amaiera emango diote, hala badagokio, Sektore publikoaren kontratuaren Legearen 44. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako edozein artikuluren arabera, kontratazioaren alorrean errekurtso berezia jartzeko aukeraren aurka egin gabe.

Nabarnizko Udala

- - - - - -

ANEXO I: **MODELO DE DECLARACION RESPONSABLE**

D. /Dª ____, con domicilio a efectos de notificaciones en la dirección de correo electrónico ____, con DNI nº ____, en representación de D. /Dª____ (o en nombre propio), con DNI/CIF nº ____, interesada/o en la adjudicación por procedimiento abierto simplificado del contrato administrativo de control de vertidos de aguas residuales de Nabarniz, expediente nº B909-2025-00004, anunciado en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi el 24 de octubre de 2025

DECLARO BAJO MI RESPONSABILIDAD:

1º. Que ostento la representación de la sociedad que presenta la oferta
2º. Que cuento con la adecuada solvencia económica, financiera y técnica o, en su caso, con la clasificación correspondiente
3º. Que cuento con las autorizaciones necesarias para ejercer la actividad
4º. Que la empresa a la que represento es entidad colaboradora habilitada para las labores de apoyo a la Administración hidráulica en materia de control y vigilancia de la calidad de las aguas, según el artículo 255 del Reglamento del dominio público hidráulico.
5º. Que no estoy incursa/o en ninguna prohibición de contratar
6º. En su caso, si la empresa en cuyo nombre actúo deseare recurrir a las capacidades de otras entidades, demostraré al poder adjudicador que va a disponer de los recursos necesarios, mediante la presentación a tal efecto del compromiso por escrito de dichas entidades.
7º. Me someto al fuero de los tribunales del estado español (para las empresas extranjeras)
8º. Acompaño el compromiso de constitución de la UTE (solamente en el caso de que la oferta se presente por una unión temporal de empresas)

(Lugar, fecha y firma)

I. ERANSKINA: **ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA**

____ jaun/andreak, jakinarazpenetarako helbide elektronikoa hauxe dudana: ____, ____ zenb. NAN dudana, nire izenean (edota ___ jaun/andrearen izenean, ___ zenb. NAN duena), 2025eko urriaren 24an Euskadiko kontratazio publikoaren plataforman iragarri den B909-2025-00004 espedientean interesa dudanez, hau da, Nabarnizko hondakin uren isurien kontrolatzeko administrazio kontratua prozedura ireki erraztu laburtuaren bitartez adjudikazioan interesa dudanez

ZERA AITORTU DUT NIRE ERANTZUKIZUN PEAN:

1. Eskaintza aurkeztu duen enpresaren ordezkaria naizela
2. Behar den kaudimen ekonomiko, finantziero eta teknikoa daukadala edo, kasua balitz, dagokion sailkapena dudala
3. Iharduera aurrera eramateko behar diren baimen guztiak dauzkadala
4. Ordezkatzen dudan enpresa jabari publiko hidraulikoaren araudiaren 255 artikuluaren araberako erakunde laguntzailea dela, uren kalitatearen kontrola eta zaintza arloan administrazio hidraulikoari laguntza emateko gaitua
5. Kontratatzeko debekurik batere ez daukadala
6. Nik ordezkatzen dudan enpresak beste erakunde batzuen kapazitateak erabili behar baldin baditu, botere adjudikatzailearei erakutsiko diot behar diren bitarteko guztiak izango dituela, esandako erakundeek idatzitako konpromisoa aurkeztuz.
7. Estatu espainoleko epaitegien eskumenari men egiten diot (atzerriko enpresetarako)
8. Enpresen aldi baterako batasuna eratzeko konpromisoa aurkeztu dut (proposamena enpresen aldi baterako batasun batek aurkeztu badu soilik)

(lekua, data eta sinadura)

Nabarnizko Udala

- - - - - -

ANEXO II: **MODELO DE PROPOSICIÓN ECONÓMICA**

D. /Dª ____, con domicilio a efectos de notificaciones en la dirección de correo electrónico ____, con DNI nº ____, en representación de D. /Dª____ (o en nombre propio), con DNI/CIF nº ____, interesada/o en la adjudicación por procedimiento abierto simplificado del contrato administrativo de control de vertidos de aguas residuales de Nabarniz, expediente nº B909-2025-00004, anunciado en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi el 24 de octubre de 2025 hago constar:

1º. Que conozco los pliegos de cláusulas administrativas y técnicas que sirven de base al contrato y los acepto íntegramente, tomando parte en la licitación y comprometiéndome a llevar a cabo el objeto del contrato por el importe total de ____ € más ____ €, correspondientes al Impuesto sobre el Valor Añadido. Dicho importe incluye además todos los tributos, tasas y cánones de cualquier índole que sean de aplicación, así como todos los gastos contemplados en los pliegos que rigen el contrato.
   El importe se refiere al plazo máximo total de duración del contrato, esto es, cinco años (cuatro más uno de prórroga)

2º. Que reúno todas y cada una de las condiciones exigidas para contratar con el Ayuntamiento de Nabarniz, y en particular efectúo el compromiso de adscribir a la ejecución del contrato los medios personales y materiales suficientes para llevar a cabo adecuadamente la prestación.

(lugar, fecha y firma)

II. ERANSKINA: **PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA**

____ jaun/andreak, jakinarazpenetarako helbide elektronikoa hauxe dudana: ____, ____ zenb. NAN dudana, nire izenean (edota ___ jaun/andrearen izenean, ___ zenb. NAN duena), 2025eko urriaren 24an Euskadiko kontratazio publikoaren plataforman iragarri den B909-2025-00004 espedientean interesa dudanez, hau da, Nabarnizko hondakin uren isurien kontrolatzeko administrazio kontratua prozedura ireki erraztu laburtuaren bitartez adjudikazioan interesa dudanez, zera ohartarazi dut:

1. Kontratuaren oinarri diren administrazio baldintzen eta baldintza teknikoen orriak ezagutzen ditudala eta haien osotasunean onartzen ditudala, lizitazioan parte hartu nahi dudala eta kontratua burutzeko konpromisoa hartzen dudala, zenbatekoa hauxe izango dela: _____ € gehi _____ €, balio erantsiaren gaineko zergari dagokiona. Esandako zenbatekoak aplikatu beharreko zerga, tasa eta kanon guztiak sartuta dauzka, eta baita baldintza orrietan aurreikusita dauden beste gastu guztiak.
   Zenbatekoa kontratuaren iraupen guztizko iraupenari dagokio, hau da, bost urteri (lau urte gehi urtebeteko luzapena)

2. Nabarnizko Udalarekin kontratatzeko bete beharreko baldintza guztiak betetzen ditudala eta bereziki konpromisoa hartzen dut kontratuaren exekuziorako bitarteko pertsonal eta material nahikoak ipiniko ditudala, egin beharreko prestazioa behar den moduan burutzeko.

(lekua, data eta sinadura)